

Landartean Balizko Paisaiak



2.Mod: Ingurune naturalarekin lanean 2026-eko maiatzaren 8-tik ekainaren 6-ra



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

Landartean | 2. Modulua: Ingurune naturalarekin lanean

Datak: maiatzak 18 – ekainak 6

Asteko egunak: ostiralak egun osoan zehar / larunbata goizak (edota egun osoan zehar)

Irakastordua: 7 ECTS - Mikrokredentziala UPV/EHU

Modalitatea: Aurrez-aurrekoa, AGET Donostia, UPV/EHU

Hizkuntza: Gaztelera / Euskara / Ingelesa

Prezioa: 179,09 €

Ikastaro hau **Landartean | Balizko Paisaiak** mikrokredentzialaren bigarren zatia da. Bere helburu nagusia hiri-ingurunea eta aldiriak gako ekologikoan birnaturalizatzeko esku-hartze irizpideak eskuratzea da. Moduluen segida gisa antolatu da prestakuntza hau, pixkanaka gaiari buruzko ikuspegi desberdinak osatu, natura ulertu eta honekin modu integratuan lan egiteko beharreak sakonduz.

2.Mod: Ingurune naturalarekin lanean

Bigarren moduluak bi eremu espazialean jartzen du fokua: hiri-lorategian eta hirien lurralde periferikoan. Bi berdegune horiei modu independentean eta elkarrekintzan begiratu nahi diegu, "barrukoa" eta "kanpokoa" ren artean irakurketa aukera berriak zabalduz, hiri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko ulermen- eta ekintza-mugak desitxuratu ahal izateko. Modulua abiapuntuko premisa da, beharrezkoa dela hirietako landare-presentziaren berrikuspen sakon bat egitea, ingurune naturalarekin dugun harremana ikuspegi funtzionaltik eta estetikutik ez ezik, ikuspegi ekologiko eta kooperatibo batetik ere ulertzeko.

Prestakuntza hau nagusiki teorikoa izango bada ere, Landartean-ek onartzen du ingurune naturala ulertzeko ezinbestekoa dela bertara hurbiltzea, ibiltzea eta ukitzea. Horregatik, "ibilaldi-klaseak" praktikatu ditugu ikasgelatik atera eta hiriko berdea behatzen ikasteko, zaintzen dutenen begiradaren bidez deszifratuz. Lurralde- eta hiri-inplikazioak dituzten espazioak eta proiektuak bisitatu ditugu, lehen eskutik ezagutzeko bai jada ezarrita dauden estrategiak eta proiektuak, bai plangintza-prozesuan daudenak. Aldi berean, lorategiaren eta *hinterland*-en interpretazioa zabalduko dugu, ikerketa plastikoaren eta akademikoaren, hausnarketa historikoaren eta landarediak dakartzan dinamika eta bizi-prozesuak ikertu dituzten paisaigintza-lanen bidez.

6 arrazoi titulu hau hautatzeko

- Diseinu- eta plangintza-irizpideak eskuratzea, ingurune hiritar eta periurbano naturalean ikuspegi ekologiaz esku hartzeko.
- Inguratzen gaituen paisaia, landaredia eta zuhaitzak irakurtzen ikastea.
- Gure lurraldean egin diren proiektuak ezagutzea, azpiegitura berdeei, zerbitzu ekosistemikoei eta sistema agroekologikoen estrategiei buruzkoak.
- Lorategien oinarriak birpentsatzea, lorategiaren jatorri historiko, interpretazio eta proiektuetan sakontzearen bidez.
- Kontzeptu teorikoetan sakontzea, lorategiari, azpiegitura berdeari eta sistema agroekologikoei buruzkoak.
- Ingurune naturalarekin lan egiteko modu plastiko eta artistikoetara hurbiltzea.

Testuingurua

Prestakuntza-ziklo hau *Donostiako Udaleko Parke eta Lorategien* arloaren behar zehatz baten harira sortu da, ekologia- eta paisaia-sentsibiltatea duten profesionalen prestakuntza eza hauteman baita hiri-birnaturalizazioaren praktikarako.

Ziklo honen helburua da prestakuntza-defizita osatu eta hiriko berdeguneen esku-hartzean eta birnaturalizazioan parte hartzen duten profil profesionaleri ezagutza aplikatua eskaintzea.

Donostiako Udalarekin izango den lankidetzari esker, ikastaroaren landa-lana hiriko berdeguneetan egingo da; gainera Udalak abiarazi eta ezarri nahi dituen proiektu pilotuetan parte hartzeko aukera izango da, bai eta hiri-parkeen eta lorategien kudeaketa eta mantentze-lan dinamikak ezagutu ere.

Aurreko modulua: 1.Mod | Inguru naturalaz hausnar (2025)

Lehen moduluan planteatutako jardunbide egokiak laburbilduko ditugu, hurbileko testuinguruetan eta kasu zehatzetan kokatzeko: lorezaintzako lan botanikoa eta paisajistikoa, agroekologia eta elikagaien ekoizpena. Hurbilketa horrek testuinguruan jartzen ditu esku hartzeko proiektuak naturarekin dituen aukerak, eta errealitatearen planora eramaten ditu.



2025-eko iraila eta azaroa bitartean egindako lehen modulua irudiak

Landartean / Balizko Paisaiak

Prestakuntza akademiko honen helburua, ingurune eraikiaren eta espazio natural-eraldatuen ekologiari buruzko sentsibilitatea piztea da. Hiri espazio antropizatuari buruzko diseinu- eta plangintza-irizpideak eskuratzeko topaketa gisa proposatu da, materia bizia eta bera eusten duen ekosistemari dagokion guztian arreta jarritz.

Xede horri heltzeko, diziplinarteko jakintzak elkarlanean jarri dira –biologikoak, filosofikoak, sozialak, artistikoak, urbanistikoak, arkitektonikoak eta paisajistikoak– pentsamendu kritikoa sustatzeko helburuarekin.

Ekosistema desberdinekin eta inguru urbanoetako prozesu naturalekin aritzeko teknikak landuko dira, eztabaida eta lankidetzaz. Espazio, lurralde eta hiri-paisaien diseinu espekulatiboa garatuko da, ikuspegi ekosistemikotik.

Ikastaroan jasotako teoria aplikagarria izango da; horretarako, euskal lurraldea hartuko da aztergai. Ikastaroaren alde praktikoa materia bizia landu, zaindu eta kudeatzeko oinarrizko ezagutzak eskuratzera bideratuko da, funtsezko jotzen baita eskuratutako ezagutza lurrarekiko harreman zuzen eta somatikora eramatea.

Modulutan antolatutako ikastaroa

Lau moduluek ezagutza teoriko-praktikoa osatu asmo dute, hiri-inguruneak sentikortasun ekologiko baten baitan birnaturalizatzeko moduei buruzkoa, landare-prozesuak eta -habitatak errespetatuz.

Lau moduluko segida gisa osatu da; pixkanaka gaiari buruzko ikuspegi desberdinak jaso asmoz, natura ulertuz eta harekin lan egiteko beharrezkoak sakonduz. Datozen moduluetan teknika, pentsamendu- eta kultura-ekologikoa, eta proiektua landuko dira.

Ikasleen profil desberdinei eta haien denbora erabilgarritasunari egokitu asmoz, mikrokredentzial prestakuntza programak gehituz ikasleek maila handiagoko titulazioak lortu ahalko dituzte. Hainbat moduluen gainditzeak, titulazio unibertsitarioetarako sarbidea ahalbidetuko du (informazio gehiago eskuratu ahalko da).

Irakaslegoa

Landartean ikastaro zikloaren helburu eta edukien egituraketa nagusia lantaldean garatuta da, *Jon Begiristain Mitxelena*, *Ainitze Otamendi Urteaga* eta *Iñigo Segurola Arregui*, eta mikrokredentzial honen zuzendari diren *Ula Iruretagoiena Busturia* eta *Mikel Azkona Uribe* rekin elkarlanean.

2. modulurako irakasle gonbidatuak *Kanpoko Bulegoa*-ren laguntzarekin zehaztu dira.

Ikastaroaren zuzendaritza

Ula Iruretagoiena Busturia
Mikel Azkona Uribe

Klase guztiak zuzendaritza taldearen jarraipen, ikuskaritza, dinamizazio eta parte hartze aktiboarekin garatuko dira.

Irakasle gonbidatuak*

- Mirene Begiristain Zubillaga
- Santiago Beruete Valencia
- Susana Cámara Leret
- Alfredo Puente
- Juan Maria Odriozola Braconier
- Ainitze Otamendi Urteaga
- Atalaya Territorio y Paisaje
- Centro de Estudios Ambientales de Vitoria-Gasteiz
- Kanpoko Bulegoa
- Soil Arquitectura del Paisaje
- Pere Sala i Marti

* Zerrenda zehatza baieztatzeke

Matrikula eta informazio orokorra

Prezioa

179,09 €

Sartzeko profila

25-65 urte bitarteko adina

Baldintzak

Ez da beharrezkoa lehenengo modulua ikasi izana bigarrenean izena emateko. Prestakuntza hiri-birnaturalizazioan interesa duen edozein profiletara zuzentzen da, baita ingurune naturalarekin ezartzen ditugun elkarbizitza-harremanei buruz hausnartzera ere.

Hautatzeko irizpideak (baldin eta beharrezkoa balitz)

Espediente akademikoa: %10

Aurre-esperientziaren egokitasuna: %80

Interesa / Beharra: %10

Hiri-eremuko alde zuzeneko prestakuntza eta/edo esperientzia baloratuko da, hainbat ezagutzarlotatik: paisajismoa, ekologia, hirigintza, ingurumen-zientziak, arkitektura, biologia, nekazaritza-ingeniaritza, ingeniari zibila, arte ederrak, lorezaintza...

Programa

	Data	Edukia
Maiatza	8	Ikastaroaren ongi etorria eta hasiera
	arratsalde	Ikastaroaren helburu eta informazio orokorrak emango dira, hala nola ikastaroan egin beharreko lanaren azalpena.
		Lehen moduluan azaldu ziren landaketarako praktika onen laburpena eta suertatu ziren galdera irekiak gogoraraziko dira, partehartzaile guztiontzako leku amankomun bat sortu aldera eta moduluaren hasierako oinarriak elkarbanatzeko.
	9	Ainitze Otamendi Urteaga
	goizez	Bisita gidatua Donostiako udal lorategietara. Zuhaitzen eta zuhaixken egoerari erreparatuko zaio, ezkutatzen duen paisaia-proiektua ezagutzeko eta kudeatzailearen pertzepzioaren bidez lorategiaren bertuteak, hobekuntzak, zailtasunak eta mantentze-erraztasunak identifikatzeko.
	15	Irene Zuñiga Sagredo / Atalaya paisaje y territorio
	goizez	Paisajista-taldeak azpiegitura berdearen eta zerbitzu ekosistemikoen gainean egindako edo proposatutako proiektuak lagungarriak izango dira birnaturalizazio-kontzeptuekin nola pentsatu eta esku hartu ulertzeko.
	15	Lorena Torres Modrego + Mikel Garcia de Eulate Castiella / Soil - Arquitectura del Paisaje
	arratsalde	Paisajista-taldeak birnaturalizazioari eta biodibertsitateari buruz egindako edo proposatutako proiektuak ezagutuko ditugu. Proiektu horiek euskal biodibertsitaterako, kulturarako eta tokiko araudirako paisaia-jardunari heltzeko hainbat modu eskainiko dituzte.
	16	CEA Vitoria-Gasteiz
	goizez	Gasteizko periferiara bisita. Bertan, azpiegitura berdeen plangintza eta hiriaren birnaturalizazioarekin lotutako beste proiektu eta programa batzuk azalduko dira.
	22	Santiago Beruete Valencia
	goizez	Lorategiaren azalpen bat ongizatea eta hiria birlandu eta birlandeatzeko proposamena eginaz, beti ere natura eta lorategiarekiko beste lotura bat ezartzearen emaitza bezala egiten bada.
	23	Juan María Odriozola Braconier
	goizez	Donostiako udal zuhaiztietara bisita gidatua, zuhaiztien habitat eraikiaren egoerari begira, hiriko zuhaitzen bilakaerari, ezaugarriei eta mantentze-beharrei buruz hitz egiteko, kudeatzailearen pertzepzioaren bidez.

- 29**
goizez **Altzako historia mintegia**
Altzako historia mintegiaren laguntzaz, Altzako periurbanoaren eraldaketa historikoa ezagutuko dugu, lurraldea eta natura urbana ulertzeko elementuak identifikatuz.
- 29**
arratsaldez **Pep Sala i Marti**
Paisaiaren ulermenean sakonduko dugu, lurraldeko paisaiaren katalogoak eta horien karakterizazioa definituz.
- 30**
goizez **Aleka + Kanpoko Bulegoa**
Aleka hazi ekologikoen instalazioetara bisita gidatua Keloren eskutik. Ondoren, natura eta paisaia kontzeptuak berrikusiko ditugu Kanpoko bulegoako kideekin.
- 30**
arratsaldez **Susana Cámara Leret + Alfredo Puente**
Gonbidatutako hizlariak garatu dituzten lanetan lurraldea, natura eta lurra kontzeptuei buruz egiten den lanketa artistiko eta kuratoriala ezagutuko dugu.
- Ekaina** **5**
goizez **Mirene Begiristain Zubillaga**
Sistema agroekologikoa ikertzeko eta praktikan jartzeko estrategiak eta metodologiak Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, lurraldeko elikadura-sistemaren datuetan errealitatea azalduz.
- 5**
arratsaldez **Ikastaroaren itxiera eta itzulketa lana**
Ikastaroko zuzendariak koordinatutako itzulketa-ekitaldi eskuzabal gisa ikasturtean zehar eman diren edukiak eta eztabaidak kolektiboki ixtea.
- 6**
goizez **Urduñako udala**
Urduñara bisita, bertako eragileekin martxan jarritako udal proiektu agroekologikoa eta etorkizunerako estrategiak ezagutuko ditugu.

Ordutegiak

Ostiraleko: 9:00-13:00 / 15:00-19:00

Larunbatero: 9:30-14:30 (irteerak antolatuko dira, eta batzuetan, alde aurretik jakinarazita, arratsaldera arte luzatu litezke)

*Bisita eta irtenaldiak larunbatetan antolatuko dira.

** Larunbatetako ordutegia, irtenaldia antolatzen den egunetan, jarduerara egokituko da eta gehienez jota 18:00tan bukatuko da saioa.

*** Klaseen ordutegia matrikulatutakoekin adostutako ordutegira moldagarria da.